

Gradu Bikoitza Datuen Zientzian eta EAZn

ING

Zergatik ikasi gradu hau NUPen?

Irakasteko metodologia berritzailea

Gradu hau NUPen eginez gero, lan munduak **maiz eskatzen dituen gaitasunak eta trebetasunak** lortuko dituzu, besteak beste ahoz ongi komunikatzeko eta diziplina anitzeko taldeetan lan egiteko gaitasunak, baita ekintzailtzarako eta berrikuntzarako trebetasunak ere.

Gradu bikoitz honetan, **kreditu praktikoa** asko daude; seihileko batzuetan gutzitzaoren % 50 inguru. Gainera, datuen zientzien esparruko irakasgaietan nahiz enpresen administrazioaren esparrukoetan, **irakaskuntzako metodologia aktiboak** erabiltzen dira, hala nola proiektuen bidezko ikaskuntza. Ebaluazio metodoak irakasgai bakoitzaren ezaugarriei egokitzen zaizkie, irakasgai esperimentalen ikaskuntza-prozesuan laguntzearen. Orientazio praktikoa osatzeko, Nekazaritzako Ingeniaritzako eta Biozientzietako Goi Mailako Eskola Teknikoak (NIBGMET) Espainiako eta nazioarteko ekintzailtzaren eta zientziaren hastapenaren inguruko jardueretan eta lehiaketetan parte hartzea sustatzen du.

Ekintzailtza-taldea

NIBGMETek ekintzailtza-talde bat sustatzen du, sormena, berrikuntza, ekintzailtza eta antzeko gaitasunak eskuratzeko interesa duten ikasle osoak.

Tutoretza Plana eta Mentoretza Plana

Irakasle tutore edo ikasle mentore bat eskatzen ahal duzu ikasketak egin bitartean laguntzeko, NIBGMETek bere titulazioetarako antolatzen dituen programei esker.

Nazioartekotzea

Nazioarteko mugikortasun programen bidez, aukera izanen duzu seihileko bat edo ikasturte bat beste herrialde batean

Interesatzen zaizu baldin eta:

- Negozioren eta teknologien mundua gustatzen bazaizu, eta interesgarria iruditzen bazaizu enpresa teknologikoko handiek azken urteotan izan duten gorakada.
- Jakin nahi baduzu nola aplikatzen den adimen artifiziala enpresetan.
- Negoziak, matematika eta informatika gustatzen bazaizkizu, eta hiru gaiak nola konbinatzen diren ikasi nahi baduzu.
- Konputazioan eta adimen artifizialean oinarritutako enpresen ekintzailtza-ekimenak interesatzen bazaizkizu, eta jakin nahi baduzu nola egokitzen diren lehendik martxan dauden enpresak teknologia berrietara.
- Ulertu nahi baduzu enpresa teknologikoa nola garatzen diren eta nola egiten dituzten negoziak, bai ekoizpenaren eta bai enpresaren ikuspegitik.

- Etorkezinean adimen artifizialaren munduan murgildu nahi baduzu eta adimen artifizialak gizartearen eta ekonomian dituen aplikazioak ezagutu nahi badituzu.
- Merkatu mota batzuetako analisi-eta inbertsio-sistema adimendunak ezagutu nahi badituzu.

Graduatzen zarenean, aukera izanen duzu:

- Adimen artifizialaren eta negozio kudeaketaren arloan lan egiteko.
- Eredu matematiko eta informatikoak aplikatzeko, enpresa-inguruneetan.
- Enpresa txikietan eta start-upetan kudeatzaile aritzeko, bai eta zure enpresa propioa sortzeko ere.
- Zure konturako enpresa-zuzendari izatera bideratzeko zure karrera.
- Datuen Zientziako eta Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako Graduetako aukera profesional guztiez baliatzeko.

egiteko; hartara, hobetu egiten dituzu atzerriko hizkuntza batean duzun maila eta askotariko inguruneetan talde-lanean aritzeko gaitasunak.

Nekazaritzako Ingeniaritzako eta Biozientzietako Goi Mailako Eskola Teknikoak eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak lankidetzahitzarmenak dituzte mundu osoko 50 unibertsitate baino gehiagorekin. Gradu bikoitz honetan, modua izanen duzu seihileko batean Datuen Zientziako Gradura bideratutako ikasketak egiteko eta beste seihileko batean Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako Gradurakoak egiteko.



Lana lortzeko aukera

Praktikak enpresetan

NUPEk lankidetzeta-hitzarmenak ditu zenbait erakunderekin, ikasle gehienek kanpoko praktikak egin ditzaten datuen zientziaren eta enpresen administrazioaren eta zuzendaritzaren arloekin lotura duten erakunde publiko eta pribatuetan.

Oinarri teknologikoko enpresak lehenbiziko postuetaraino igo dira enpresa balioetsuenen edo preziatuenen sailkapenetan. Halako enpresek gure bizimodua aldatzen duten produktuak diseinatzen dituzte, eta egoera soziala, teknologikoa eta enpresena eraldatzen duten zerbitzuak ematen dituzte. Enpresa teknologikoen negozio-, finantzazio- eta hazkunde-ereduak iraultzaileak izaten dira, eta, beraz, urte askoan sektore sendoetan aritu diren enpresek ere erabiltzen dituzte. Hortaz, korporazio teknologikoak erabakigarriak diren mundu aldakor hau ulertzeko, eraldaketa

bultzatu duten teknologiak eta enpresen hazkundera ziurtatu duten jardunbideak ikertu behar dira.

Gradu honetan, konputazioko eta adimen artifizialeko teknika berrienak erabiltzen ikasiko duzu, bai eta negozioen munduaren oinarriak eta funtzionamendua ere.

Gradua bukatutakoan, oso profil zabala izanen duzu: bi arloetako aditu gisa lan eginen duzu enpresa handietan, edo profesional gisa jardun ekintzailletza teknologikoko ekimenetan, bankuetan, aholkularitza-enpresetan edo gobernu-organoetan.

Irakasgaiak - 360 ECTS (sei ikasmaila)

1	1.S	Algebra lineala	Kalkulua I	Biologia	Programazioa	Datuen zientziarako sarrera	Enpresaren ekonomia
	2.S	Estatistika I	Fisikaren hastapenak	Datu egiturak	Matematika diskretua	Kalkulua II	
2	3.S	Estatistika II	Algoritmia	Ekuazio diferentzial arruntak	Ekonomiaren hastapenak	Finantza eragiketak	
	4.S	Finantza kontabilitatea I	Ekonomia aplikatua	Mikroekonomia	Zenbakizko metodoak	Aldagai konplexua eta fourierren analisia	Datu baseak I
3	5.S	Zuzenbide pribaturako sarrera	Finantza kontabilitatea II	Genetikaren hastapenak	Objektuei bideratutako programazioa	Optimizazioa I	Datuen prestaketa Modelizazio estatistikoa
	6.S	Merkataritzako zuzendaritza I	Merkatuak eta finantza-tresnak	Programazio konkurrentea eta banatua	Optimizazioa II	Eredu estatistiko aurreratuak	Aldaera anitzeko analisia eta datuen bistaratzea
4	7.S	Datu baseak II	Ikaskuntza automatikoa	Merkataritzako zuzendaritza II	Finantza zuzendaritza I	Eragiketen zuzendaritza	Industria antolamendua eta lehia estrategikoa
	8.S	Merkataritzako zuzenbidea	Enpresaren historia ekonomikoa	Giza baliabideen kudeaketa	Kudeaketa kontabilitatea	Enpresaren sistema fiskala	
5	9.S	Kriptografia	Optimizazioa III	Ikaskuntza sakona	Jakintzaren erazketa	Simulazioa	
	10.S	Zuzendaritza estrategikoa	Finantza zuzendaritza II	Merkatuen ikerketa	Zientzia eta gizartea	Big data	
6	11.S	Antolamenduzko diseinua eta jokabidea	Makroekonomia	Kontabilitate informazioaren analisia	GALa (Datuen zientzietakoa)	GALa (EAZkoa)	

108 ECTS Oinarrizko prestakuntza | 12 ECTS GALa
240 ECTS Nahitaezko irakasgaiak



Escuela Técnica Superior de Ingeniería Agronómica y Biociencias
Nekazaritzako Ingeniaritzako eta Biozientzietako Goi Mailako Eskola Teknikoa

+ info:
etsiab@unavarra.es
www.unavarra.es/ets-agronomos



upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa